eman ta zabal zazu

universidad del país vasco — euskal herriko unibertsitatea

Euskal Filologia

# KOLOKAZIOAK:
# OEH
# ETA EGUNGO
# ERABILERA

**Xabier Altzibar**
**Juan Carlos Odriozola**

# 0. Sarrera
## 0.1. Motibazioa

- 0.Esker ona adierazi nahi diogu K. Mitxelena zenari, guri beti egin zigun harrera ezin hobea eta emandako laguntzagatik. Eskerrak baita ere haren izen eta omenezko III. Katedra Biltzarraren antolatzaileei.
- Koldo Mitxelenaren eta haren jarraitzaileen OEH erreferentzia nagusia izan dugu lan batzuetan, eta oso probetxugarria gertatu zaigu.

# 0. Sarrera
# 0.1. Helburua

- Egungo hiztegigintzarako kolokazioaren kontzeptua azpimarratu nahi dugu, beste hizkuntzetan duen garrantzia kontuan hartuta egungo euskara estandarraren ikaskuntzan, irakaskuntzan eta erabileran eragin handia izan behar lukeelako.
- Gure ekarpentxo hau ikertzaile zenbaiten lan ildo baten emaitza xumea da.
- Zehazki: hitz abstraktuen erabileran gertatu den aldaketa adibide batzuen bidez erakutsi nahi dugu ezaugarri batzuk azalduz eta gogoeta zenbait eskainiz.

# 0. Sarrera
## 0.2. Lagina

- OEH eta egun korritzen dutenen arteko konparazioa.
- OEHren formatu digitala erabili dugu, horko adibide osoak.
- Lagina: 8 lema edo gako-hitzek osatutako konbinazioak (kolokazioak): *adierazpen, ageri(an), arazo, arrakasta, aukera, babes, baldintza, istilu*.
- Lema edo gako-hitzok, eta horiekiko kolokaziook, hizkuntza estandarrean eta beraz kazetaritzan oso erabiliak dira.

# 0. Sarrera
## 0.3. Corpusak

- **Lexikoaren Behatokia (LB): 2.000. urtetik aurrerako testuak.**
- **Egungo Euskararen Hiztegia (EEH): letra batzuez hasitako hitzak soilik ikusgai (*i* letrakoa: *istilu*).**
- **Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): prentsako eta liburuetako testuak, 2006-2010 bitartekoak. Maiztasuna edo esaldi kopurua corpus honetatik aterea da: 5 esalditik gorako kolokazioak baino ez ditugu kontuan hartu.**
- **Corpus hauetako kolokazioak idatzizko erabileraren erakusburu dira, batez ere, ahozko hizkuntzarena baino gehiago.**

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- Lehenengo eta behin, onartuko dugu…

…azpikategorien bidez azaldu daitezkeenak ez direla kolokazioak

  - *Txakurra bete* 'ase'➔ ez (azpikat:+biziduna); sintaxi erabat askea
  - *Agindua bete* ➔ bai (azpikategorizazioa baino zerbait zorrotzago behar delako hemen *agindua bete* /? *erregua bete* azaldu ahal izateko

- Egileon konpetentzian bertan oinarrituta, hasierako kognizio-hipotesi bat, laborategiko saioetan egiaztatu beharko litzatekeena

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- **Euskaldun bati galdetzen baldin bazaio zerekin azaltzen den *uxatu* aditza, erraz emango du...**
  - **...*zalantza /? ahanztura* bereizketa izen psikologikoen artean**
- **…eta *sakon(eko), sakonki* zein aditzekin edo izenekin azaltzen diren galdetuta, jarduera intelektualeko aditzen artean berehala emango *du...***
  - ***sakon(ki) ikertu / ? sakon idatzi***
  - ***Ikerketa sakona / ? idazketa sakona***
  - ***Sakoneko ikerketa / ? Sakoneko idazketa***

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- **Baina susmoa daukagu (Odriozola 2010) ez liratekeela hain azkarrak izango alderantzizko kognizio-bideak**
  - ***Zalantzak* ➔ *uxatu***
  - **…edo *ikerketa, ikertu* ➔ *sakon(eko)***
- **Kognizio- edota prominentziaren ikuspegi horretan oinarrituta (Corpas 2001a, Corpas 2001b, Altzibar 2001, 2005a, 2005b, Odriozola 2010), esan liteke...**
  - **…*uxatu* eta *sakon* direla nagusi, eta *zalantza* eta *ikerketa* menpeko**

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- **Badakigu hizkuntzalaritza formalean *uxatu* eta *ikerketa /ikertu* direla egitura-buru**

- **…baina hemen, kognizio- edota prominentziaren ikuspegi horretan oinarrituta *uxatu* eta *sakon(eko)* hartu beharko lirateke abiapuntu,…**

- **…eta nola edo hala sintaxi-azpikategoriak baino finagoak diren klase lexikoak finkatu beharko lirateke *zalantza / *ahanztura* eta *ikerketa, ikertu /*idatzi* horien berri emateko**

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- ***Uxatu***
- ***sakon(eko)***

**Oinarriak, kolokatuaren arabera adiera aldatzen dutenak**

- ***Zalantza ≠ txoriak***
- ***Ikerketa, ikertu ≠ aurkitu***

**Kolokatuak, klase lexikoetan sailkatuta (Bosque 2002)**

***Zalantza*: onak ez diren sentipenak adierazten dituzten izenak**
***aurkitu:* jarduera fisiko edo Psikologikoko aditzak, Ondorioak ekar ditzaketenak**

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- **Hala ere, badira gauzak beste norabidean ulertzen dituztenak**

**F (*zalantza*)$_{ezabatu}$ = uxatu**

- **'Ezabatu' bezalako funtzio lexikoak *Zalantza* → *zalantza uxatu* eragiten dutenak (Mel'cuk 1998)**

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- Fraseologia ulertzeko bi modu osagarri dira horiek,…
- ..eta fraseologia lan jakin baten helburuen arabera, gerta daiteke bata ala bestea egokiagoa izatea
- Guk hizkuntza orokorrean gertatu diren aldaketa zabal batzuen berri eman nahi dugu, eta corpus idatzietan eta batez ere Komunikabideetan aztertuko ditugunez,…

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- …egokiago iritzi diogu klase lexiko jakin batzuetan erabilera-maiztasun handia duten kolokatu batzuk aukeratu (*aukera, baldintza, murrizketa*…)

- …eta kolokatu bakoitzari ezarri zaion oinarri-aldaketa aztertu

# 1. Abiapuntuko hipotesia eta metodologia

- Alegia, hau bagenuen,

F (*aukera*) $_{helarazi}$ = *eman*

- …eta horretaz gain, egun hau badaukagu,…

F (*aukera*) $_{ezabatu}$ = *zapuztu*

*Aukera eman (helarazi)* ➔
*aukera zapuztu (ezabatu)* bezalako zabalkundeen berri ematea dugu azkeneko helburua

## 2. Emaitzak
## 2.1. *Adierazpen*
## 2.1.1. Orotara

- (iz. + izond.): *adierazpen argi (6), instituzional (10), publiko (7).*
- (izenlag. + iz.) *-(ar)en aldeko adierazpen (5).*
- (adlag.): *argi adierazi (22).*
- *(iz. + ad.) adierazpena egin (7), adierazpenak egin (49), -ak entzun (8), -ri/-ei erantzun (5), -a irakurri (6), izan (da/dira, du/ditu:7), a. bat/-a onartu (8), sinatu/izenpetu (6/3).*

## 2. Emaitzak
## 2.1. *Adierazpen*
## 2.1.2. Egungoak eta OEHkoak

- **OEHn ez ageri egungo 9, maiztasun handikoak: *a. argi, a. instituzional, en aldeko a.; argi adierazi; -ak entzun, -ei erantzun, -a(k) irakurri, -a(k) onartu, -a(k) sinatu*.**

- **Bai, ordea, 2, maiztasun handikoak: *adierazpenak egin, adierazpenak izan*.**

# 2. Emaitzak
## 2.2. *Ageri(an)*
### 2.2.1. Orotara

- ***Agerian egon (dago*** **etab.** ***20), geratu/gelditu (114/78), izan (7), jarri (25)/ezarri (6), utzi*** **('dejar claro', 'to make clear'*****;286)***
- ***Ageri izan*** **(da, du; batez ere *ageri da* 570); *ageri zen* 437).**
- ***Agerikoa izan*** **(batez ere *agerikoa da* 72; *agerikoa zen* 37).**

# 2. Emaitzak
## 2.2. *Ageri(an)*
### 2.2.2. Egungoak eta OEHkoak

- OEHn ez ageri 3: *agerian geratu, agerian ezarri* eta, batez ere, *agerian utzi*. Azken hau nabarmenki ugaldu da.
- Bai, ordea, 6: *agerian egon, -n gelditu, -n izan, -n jarri, ageri izan (da), agerikoa izan (da)*.
- *Ageri da* klasikoak irauten du, baina *agerian egon* zabaldu da eta lurra jaten ari zaio (EPDko *agerian dago* gehienak *ageri da*-ren baliokideak dira).

# 2. Emaitzak
## 2.3. *Arazo*
### 2.3.1. Orotara

- (iz. + izond.) *Arazo handi (176), larri (111), nagusi (23), sakon (7).*
- (izenlag. + iz.) *benetako arazo* (11).
- (iz. + ad.) *arazo(-ak, -rik) aurkitu (8), eduki (21), -ak ekarri (12), -ak –i (norbaiti) eragin (35), gainditu (11), izan (da/dira, du/ditu; 521), konpondu (48;* adib. bakarra OEHn)*, sortu* 'crear problemas/dificultades' *87).*
- *Arazo bihurtu (6)*
- (Postpos.) *-ez/-ei buruz hitz egin (10:7/3)*

## 2. Emaitzak
## 2.3. Arazo
## 2.3.2. Egungoak eta OEHkoak

- **OEHn ez 8:** ***arazo nagusi, a. sakon, benetako arazo, -ak –i (norbaiti) eragin, -a(k) gainditu, -a(k) sortu, arazo bihurtu.***
- **Bai, ordea, 7:** ***arazo handi, a. larri, -a(k) aurkitu, -a(k) eduki, -a(k) ekarri, -a(k) izan, -a(k) konpondu.***

# 2. Emaitzak
## 2.4. *Arrakasta*
### 2.4.1. Orotara

- (iz. + izond.-a, -ik etab.)) *arrakasta gaitz* (26, horietatik 23 *Herriakoak*), *a. handi (96), itzel (20), izugarri (5)*.

- (izenlag. + iz.) *Erabateko* a. (7).
- *(iz. + ad.) arrakasta eskuratu (6), lortu (91), izan (du etab., 225).*
- *(*Postpos.*) -z egin (7).*

## 2. Emaitzak
## 2.4. *Arrakasta*
## 2.4.2. Egungoak eta OEHkoak

- OEHn ez ageri 6 kolokazio: a. *itzel, izugarri, erabateko* a., a. *lortu*; *arrakastaz egin*.
- Bai 3: a. *gaitz, handi, izan*.

**2. Emaitzak**
**2.5. *Aukera***
**2.5.1. Orotara**

- **Aukera hitzaren adierak: 1. ‘Hautatze; hauta daitezkeen gauzetako bakoitza’ [gazt. ‘elección, opción’]. 2. Hauta daitezkeen gauzen multzoa. 3. Zerbait egiteko gertatzen den ahala edo egokiera (gazt. ‘ocasió’n) (*Euskaltz. Hiztegia*, 2012).**

# 2. Emaitzak
## 2.5. *Aukera*
### 2.5.1. Orotara

- 1. eta 2. adieran:
- (iz. + izond.) *aukera erreal (8), ezberdin (8)/desberdin (3), handi (87*), batez ere 1., 2. adieran), *on* (142; ez garbi bereizten 1., 2., 3. adierak, baina gehienetan 3.a), *politiko (33), txar (10*); batzuetan 1., bestetan 3. adiera), *zabal* (20).

# 2. Emaitzak
## 2.5. *Aukera*
### 2.5.1. Orotara

- 1., 2. adieran
- (iz. + ad.) *Aukera* (*hainbat/zenbait* etab. *-a, -ak, -rik*), *aztertu (39), baztertu (39), eduki* (gutxiago adiera honetan ‘egokiera’, ‘abagune’ adieran baino), *egin* (24/46 bitartean), *egon (39), eman (371), eskaini* (45, gehienak 1. adieran), *ikusi* (17; 1. adieran gehienbat), *-a izan* (738 gutxienez), *kendu (8), -a mahai gainean jarri (6), -a zabaldu (18)/ireki* (da, du; 6).

## 2. Emaitzak
## 2.5. *Aukera*
## 2.5.1. Orotara

- 3. adieran (egokiera, gazt. 'ocasión', 'oportunidad'):
- (iz. + izond.) *aukera argi (18) bakar* (129; batzuetan 1., bestetan 3. adieran), *berri (22), bikain* (33; 1. nahiz 3. adieran), *eder (31), egoki (5), ezin hobe (45*, batez ere prentsan*), historiko (19), paregabe (97), polit* (38).

# 2. Emaitzak
## 2.5. *Aukera*
### 2.5.1. Orotara

- (iz. + ad.) *Aukera(k, -rik) aprobetxatu (23)/-a baliatu (78), aukeraz baliatu (7)/-a profitatu (3), -a alferrik galdu* (11; 1., 3. adieran), *aurkitu (5; topatu 1), eduki* (EPD 84), *egin (46), aukera egon (39), galdu (115), -ak izan (du/da; 25/33 bitartean), pasatzen utzi (du; 5), sortu (71), zapuztu (8).*

# 2. Emaitzak
## 2.5. *Aukera*
### 2.5.2. Egungoak eta OEHkoak

- **OEHn ez ageri 32 kolokazio:**

  **(iz. + izond.), 1. eta 2. adieran: *aukera erreal, a. ezberdin, a. politiko, a. txar, a. zabal*. 3. adieran: *aukera argi, a. bakar, a. berri, a. bikain,a. egoki, a. ezin hobe, a. historiko, a. paregabe, a. polit*.**

  **(iz. + ad.), 1., 2. adieran: *a. alferrik galdu,a. aztertu, a. baztertu, a. egon, a. eskaini, a. ikusi,a. kendu, a. mahai gainean jarri, a. zabaldu*. 3. adieran: *a. aprobetxatu, -a baliatu /-az baliatu, a. aurkitu, a. egin, a. galdu, -ak izan, -a(k) pasatzen utzi, -a(k) sortu, -a(k) zapuztu*.**

- **OEHn badira 6, maiztasun handikoak: *a. eder, a. eduki, egin, eman, izan, egon*.**

## 2. Emaitzak
## 2.6. *Babes*
## 2.6.1. Orotara

- (izond. + iz. -a gehienetan): *handi (36), oso (64), zabal* (29, denak prentsakoak).
- (iz. + ad.) *Babesa adierazi (8), agertu (dio) (54), bilatu (14), elkartasuna eta babesa adierazi (7), eman (dio) (123), erakutsi (dio, gehienetan) (8), eskaini (dio) (30), eskatu (du, dio) (42), izan (du) (56), jaso (93)/eskuratu (4), kendu (dio,* gehienbat*) (7).*
- *-(r)en babesean (ari, egin,...) (193)/babespean (86).*

# 2. Emaitzak
## 2.6. *Babes*
### 2.6.2.. Egungoak eta OEHkoak

- OEHn ez ageri 13 kolokazio: *b. handi, oso, zabal; -a adierazi, agertu, elkartasuna eta babesa adierazi, eman, erakutsi, eskaini, eskatu, jaso, kendu, -en babes(p)ean.*
- Ordea, badira 3: *bilatu, izan, -en babes(p) ean.*

## 2. Emaitzak
## 2.7. *Baldintza(k)*
## 2.7.1. Orotara

- (iz. + izond.) *Baldintza* (gehienetan pl): *-a, -ak, -etan, -rik). Baldintza bakar (40), berezi (7), berdin (11), duin (22), egoki (26), eskas (6), gogor (17), kaskar (7), hobe (22), jakin (9), nagusi (7), b. normaletan (egin, saldu,...) (6; b. normal 0), on (15), txar (27), zail (7), zorrotz (10).*
- (izenlag. + iz.) *ezinbesteko baldintza (57), gutxieneko baldintza(k) (29).*

# 2. Emaitzak
## 2.7. *Baldintza(k)*
### 2.7.1. Orotara

- (iz. + ad.). (gehienetan pl.). *-ak aldatu (13, pr), bete (18), ezarri (8), gogortu (14), hobetu (18), jarri (10;* OEH *ipini/jarri), onartu (12), salatu (11), sortu (10).*

# 2. Emaitzak
## 2.7. *Baldintza(k)*
### 2.7.2. Egungoak eta OEHkoak

- OEHn ez ageri 20 kolok, maiztasun handikoak: *baldintza berezi, duin, egoki, eskas, ezin hobe, gogor, jakin, b. normaletan, b. on, txar, zail, zorrotz; ezinbesteko b., gutxieneko b.; baldintzak aldatu, ezarri, gogortu, hobetu, onartu, salatu, sortu*.
- OEHn badira, ordea, 5: *bakar, berdin, nagusi, bete, jarri*.

# 2. Emaitzak
## 2.8. *Istilu*
### 2.8.1. Orotara

- (iz. + izond.).*Istilu larri* (7; hau da erabiliena EEHn ere:33).
- (iz. + ad.). *istilu(-a, -ak, -rik) gertatu (5), izan (da, du; 61), istilu(et)an parte hartu (6; EEH), istiluak piztu (EPD 6), istiluak sortu (13).*

## 2. Emaitzak
## 2.8. *Istilu*
## 2.8.2. Egungoak eta OEHkoak

- OEHn ez ageri 4 kolokazio, maiztasun handikoak: *i. larri, -etan parte hartu, -a(k) piztu, sortu.*
- Bai, ordea, 2: *-a(k) gertatu, izan*.

# 3. Ezaugarriak
## 3.1. Nominalizazioa nagusi

Kolokazio berri gehienak: iz. + izond., iz. + ad.

- Batzuk: izenlag. + iz.
- Gutxi: adizlag. + ad.
- Nominalizazioa nagusi, salbuespenak salbuespen.

# 3. Ezaugarriak
# 3.2. Adierak murriztu

- **Kolokazioak adiera abstraktudun hitzez osatuak dira.**
- **Kolokazioetan hitzen adiera abstraktuagoa eta murritzagoa bilakatu da (*adierazpenak egin, arazoak sortu, babesa jaso*)**

# 3. Ezaugarriak
# 3.2. Adierak murriztu

- *Adierazpen* izenaren esanahia gero eta gehiago mugatu da. Egun adierazpena:
- “1. Adieraztea, azalpena. 2. Jendaurrean zerbait aditzera emateko egiten den izkribua. Ik. agiri. 3. Norbaitek bere barnean duena adieraztea” (*Euskaltz. Hiztegia*).
- *Adierazpenak egin* kolokazioak 3. adieran biltzen diren adierazpen mota jakinak biltzen ditu (pertsonaia ospetsuenak komunikabideen aurrean)

# 3. Ezaugarriak
# 3.2. Adierak murriztu

- **Arazoren adiera  murriztu da. Egun, gehienetan 3. adiera du: “arazo 3. Batez ere pl. Erabakitzeko edo konpontzeko edozein eratako eragozpenak agertzen dituen egitekoa” (*Euskaltz. Hiztegia*).**
- **Egungo kolokazioetan gutxiagotan erabiliak dira OEHn bilduak diren zenbait adiera: “arazo. 2. Ocupación, quehacer o trabajo molestos, difíciles; (…); cuestión, asunto, materia” (azken hau Euskaltzaindiaren Hiztegian ere ez da bildua).**

# 3. Ezaugarriak
# 3.2. Adierak murriztu

- *Arrakasta* hitza batez ere 2. adieran espezializatu da: “2. Egiteko, erabaki edo gertaera sail baten ondorio ona; nahi edo desiratzen dena lortzea” (*Euskaltz. Hiztegia*). 1. adiera (“Harrera ona”).
- *Babes* zabaldu da 2. adieran: “2. Iz. Egitasmo edo ekimen bati ematen zaion laguntza” (*Euskaltz. Hizte*gia).’

# 3. Ezaugarriak
# 3.3. Finkatzeko prozesuan

*agerian geratu/gelditu* (114/78). Orotara biak gehiago erabilian prentsan; baina proportzioan *agerian geratu* erabiliagoa liburuetan prentsan baino (31/8),

*arazoak ekarri/sortu (12/87),*

*arazoez/-ei buruz hitz egin (7/3),*

*aukera baliatu/-az baliatu/-a aprobetxatu/-a profitatu (78/7/23/3),*

*-ren babesean/babespean (193/86),*

*istiluak piztu/sortu (6/13).*

# 3. Ezaugarriak
# 3.4. Kalkoak?

Hipotesia: Gaztelaniazko kolokazioen egokitze edo moldatzea. Gaztelaniazkoen baliokide bakar:

- *aukera*, gazt. ‘opción’, ‘ocasión’, ‘oportunidad’: *aukera erreal* ‘opción real’, *aukera baztertu* ‘descartar una/la opción’);
- *babes* ‘apoyo’: *babes oso* ‘total apoyo’, ‘pleno apoyo’, *babes zabal* ‘amplio apoyo’, *babesa kendu* ‘retirar el apoyo’);
- *istilu* ‘disturbio’: *istilu larriak* ‘graves disturbios’.

# 3. Ezaugarriak
# 3.5. Hibridoak

- Jatorriz, hibridoak dira kolokazio berri asko, euskalki desberdinetako hitz kultoez osatuak: *arrakasta* (ekiald.) *lortu* (mendeb.).

# 4. Ondorioak
## 4.1. Ugaltzea

- Kopuruz OEHkoak baino askoz gehiago dira LB, EPDkoak: 8 hitzen ardatzean sortutako 95 kolokazio berri kopurutu ditugu, maiztasun aski handikoak. Kolokazio berrien uholdea gertatu da.
- Kolokazio berri horiek euskara estandarraren hiztegia hein bat aldatzen eta dudarik gabe eraberritzen ari dira azken 50 urteetan.

# 4. Ondorioak
# 4.2. Estandarraren indartzea

- Kolokazio berriak ugaltzearen ondorio bat nabari da euskararen erabileran: estandarraren indartzea.
- 1 Kolokazio berriak tradiziokoetatik aldendu dira.
- 2. Euskara estandarra indartu da, euskara mintzatu eta lagunartekotik hein bat urrunduz.

# 4. Ondorioak
# 4.3. OEHko asko desagertze bidean

OEHko konbinazio asko desagertze bidean:

- *Adierazpen*ekikoak: batzuk ez dira ageri EPDn: *adierazpena* (/hau/izond) *agertu*. Edo adibide gutxikoak dira: *adierazpena* (/hau/izond) *aurkeztu* (1).
- *Ageri*rekikoak: desagertuz doaz, *agerian*-en mesedetan (*ageri ibili, egon, gelditu, eduki, laga, jarri* galduz doaz; soilik *ageri egon*en adibide pare bat EPDn).Egun erabilerrazagoa dirudi *agerian*ek.

# 4. Ondorioak
# 4.3. OEHko asko desagertze bidean

- *Arazo*rekikoak: OEHko batzuk, erabilgarriak, agian: *arazoetan ibili, arazoak erabili, arazoak eman, arazoak ipini, arazoak utzi, a. zuzendu*. Baina kontua da ez direla erabiltzen (adibiderik ez EPDn). Egun *arazoak ekarri* baino erabiliagoa da *arazoak sortu*.

- *Arrakasta*rekikoak: OEHn ez da ageri *arrakasta lortu*, egun hain erabilia; bai *a. bildu*, baina egun, a. *bildu*-ren ordez a. *lortu* erabiltzen da Heg. Hala ere, erabilgarria da, noski, a. *bildu*.

# 4. Ondorioak
# 4.4. Euskaltzaindiaren Hizte-giaren lekukotasuna

- **Nabaria da *Euskaltzaindiaren Hiztegi*aren (2012) ahalegina egungo kolokazioak onartzeko: maiztasun handiko asko sartzen ditu; beste batzuk ez.**

# 4. Ondorioak
## 4.4. Euskaltzaindiaren Hizte-giaren lekukotasuna

- Badakigu adiera bakoitzeko  askorik jartzerik ez dagoela, badakigu ere ez dela erabileraren hiztegi bat, baina hain zuzen gehien erabiltzen diren kolokazioen adibide gehiago jarri behar direla uste dugu; horretan labur gelditzen da gure iritzian. Adib., espero genituen: *adierazpenak egin, agerian utzi, arazoak sortu edo konpondu, arrakasta lortu, aukera on edo aukera eman; babesa jaso, baldintza egoki, hobe edo txar*, edo *gutxieneko baldintza, edo istiluak sortu*.

# 4. Ondorioak
# 4.5. Zergatiak

- Berritzearen arrazoiak: premia berrietaratzeko ahalegina, estandarizazioa, tradizio idatziaren galera partziala ezagutza ezaz, hedabideen eragina.
- Balorazio orokorra: inguruko hizkuntza nagusiekin berdintzeko ahalegina.
- Tradiziozko asko, gal litezke, baina garaiz gaude berreskuratu eta berpizteko

# BIBLIOGRAFIA


- ALTZIBAR, X. (2001). ‘Irudizko lokuzioak Hiriart-Urrutiren kazetalanetan’. Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa: 161-224.
- ALTZIBAR, X. (2005a). ‘Hizketa formula ohikoak’. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- ALTZIBAR, X. (2005b). ‘Kolokakioak euskaraz. Zer axola duten kazetaritzan’. II Congreso Cát4edra Luis Mitxelena.
- BOSQUE, I. (2002). Redes. Diccionario combinatorio del español contemporáneo. Ediciones SM, Madrid
- CORPAS, G. (2001a). ‘Corrientes actuales de la investigación fraseológica’. Euskera46 (1): 21-49
- CORPAS, G. (2001b). ‘En torno al concepto de colocación’ Euskera 46 (1): 89-108
- MEL’CUK, I. (1998). ‘Collocations and Lexical Functions’. Phraseology. Theory, Analysis and Applications. A.P.Cowie (arg.). Oxford University Press. Oxford-New York. 2005
- ODRIOZOLA, J.C. (2010). Euskararen aditz-unitate fraseologikoen deskribapena. Katedra-plazarako lehiaketako ikerkuntza-egitasmoa
- ODRIOZOLA, J.C. & X. Altzibar. Complex predicates and grammar change (eskuizk.)
- ZABALA, I. (2004). “Los predicados complejos en vasco”. Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco. E.Pérez-Gaztelu, I.Zabala & L.Gràcia (ed). Universidad de Deusto /Deustuko Unibertsitatea: 445-534.